

Federik gabe, ez nintzateke ohetik aterako

Noelia eta Jesus Mari,
Unibertsitateko ikasgelan
ezagutu zuten elkar. Biak
supernumerarioak dira. Hiru
urtez ezkongai izan ondoren,
ezkontzea erabaki zuten. Garbi
zeukaten familia bat osatu nahi
zutela. Beren familia

2011 Urt 14

Noeliari zenbat seme-alaba dituen
galdetzen diotenean, bi modutara

erantzuten du: “lau” edo “bost: Zeruan haietako bat”. Baina Almudenak, Alvarok, Blankak eta Begoñak, beti, aldaketarik gabe, erantzuten dute: “bost gara. Maria Zeruan dago”. Haurrak dira, beraz, filtro gabekoak.

Noelia bosgarren aldiz zegoen haurdun. Bazekien zesarea egin behar ziotela. Haurra maiatzaren 30ean jaio zen, baina ez zuen negarrik egin. Sendagile batek haurra hurbildu zion, esanez haren hazpegietan Down sindromea azaltzen zela. Noeliari lehenik bururatu zitzaiona “goretsia izan bedi Jainkoa” izan zen. 2 kilo eta 300 gramo pisatzen zituen haur hura ondasun izan zitekeela familia guztiarentzat pentsatu zuen. Noeliak, Jesus Marik eta beren seme-alabek sindrome bera duen 28 urteko mutil bat ezagutzen dute, Gillermo, bere etxeko poza.

Ez zuen inoiz pentsatu gauza izango ez zenik bere alabaren gaitza eramateko; aldiz, Jainkoak emango ziela behar zuten indarra, eta Jaunak horrela jaio zedila utzi bazuen, arrazoiren bati izango zuela.

“Haurra eman badidazu, ez iezadazu kendu orain!”.

Jaio eta hiru ordu ondoren, Down sindromea duten haurrengan ohikoa den sortzetiko kardiopatia bat zuela esan zieten. Haurren ZIUra eramane zuten. Ebakuntza kirurgiko bat egin behar zitzaion, baina haurra zerbait hazi arte itxaron behar zen, bi edo hiru hilabete. Eta orduan, Noelia lur jota gelditu zen: “Eman badidazu, ez iezadazu kendu orain”; hori zen bere otoitza, negarrari eman ez tarteka.

Jaio eta handik bi egunera bataiatu zuten. Maria jarri zioten izena. Jende askoren otoitzak, bisitak, laguntza, lagunak eta lankideak bidali zizkioten loreak aringarri izan ziren

Noeliarentzat, mila moduz
adierazten baitzioten bere ondoan
zeudela. Jesus Marik seme-alabei
esan zienean Mariak Down
sindromea zuela, kezkatu zien gauza
bakarra izan zen jendeak iseka
egingo ote zion.

Irailaren hasieran egin zioten
ebakuntza. Hamaika ordu iraun
zuen. ZIUn ikusi ahal izan zuten.
Noelia eta Jesus Mari lur jota zeuden,
eta horrela egon ziren bost egunez,
goiz eta arratsalde. Egunero beste
zerbait azaltzen zitzaion haurrari,
eta aldi berean, ospitalean
itxaropena mantentzera bultzatzen
zieten.

“Zuk ematen didazu, Zuk kentzen”

“Egin bedi zure borondatea” zen
orain Noeliaren otoitza, beste
honekin batera: “Ez ezazu eraman,
senda ezazu, egin mirari bat”. Ez
zuen inoiz etsi: bere alaba zen. Ez
zuen pentsatu nahi hilko zenik,

lehenengo otoitza “Eman badidazu,
ez kendu orain” bestelako hau
bihurtu zen arte: “Zuk ematen
didazu, Zuk kentzen”, eta ziur egon
zen arte bere gurasoen, anai-
arriben, familia osoaren eta lagun
bihotzak urtu zituen haur hura,
misio bat betetzera etorri zela
mundu honetara, hiru hilabeteko
misio labur bat izan bazen ere.
Iraileko 8an hil zen, eguerdiko
hamabietan. Noeliak ordua
azpimarratzen du, Elizak Angelus
otoitzaren bidez Jainkoaren Amaren
sorkunde orbangabea gogoratu ohi
duen ordu bera baita.

**“Berez lasgarria dena santuen
elkartasunak eramangarri
bihurtzen du”**

Eta horren ondoren hutsunea, hitzez
ezin adieraz daitekeen nahigabea,
“federik gabe ez nintzateke ohetik
aterako” dio. Eta aldi berean, ziur
dago aingeru bat daukala zeruan,

egunero laguntzen diena eta beraien alde Jaunari otoitz egiten; etxean naturaltasun osoz hitz egiten dute Mariari buruz; maiatzaren 30ean, alegia, urte bat bete beharko zuen egunean, bere urtebetetzea ospatu zuten. “Bost ume ditut –dio Noeliak–, batek ez dit lanik ematen, aldiz, kendu egiten dit”.

2009ko irailaren 9 hartatik aurrera, Mariak hobe bihurtu duela pentsatzen du, bakarrik merezi duten gauzei garrantzia ematera ikasi baitu, eta laneko larritasunak ere duten neurrian hartzen. “Opus Dein lagundu zidaten Mariaren gaitza eta heriotza naturaz gaineko ikuspegiz begiratzea. Konturatzen zara ez zaudela bakarrik, jende askok laguntzen zaituela bere otoitzaren bidez. Berez lazgarria dena, santuen elkartasunak eramangarri bihurtzen du” esaten digu

Eta Down sindromea duen haur bat ikusten duen bakoitzean, hunkituta gelditzen da, ezinbestez.

Eta, alde batetik, Maria aurrera ateratzeko ahalegin guztiak egin eta bide guztiak bilatu zituzten profesionalak ikustean, eta bestetik, paradoxa gisa, bere amaren sabelean dagoen haurra, ardura guztiak behar dituela, gizarteak –gizarte berak– errespetatzen ez duela ikusirik, kezkatuta geratzen da.

pdf | document generated
automatically from <https://opusdei.org/eu-es/article/federik-gabe-ez-nintzateke-ohetik-aterako/> (2026 Mar 13)